

Donostian, Diputazio Jauregian, 1980.eko Irailaren 26an, arratsaldeko lauretan, egin du Euskaltzaindiak bere hil oroko batzarra, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruorde, P. Altuna, A. Irigaray, A. Irigoyen, E. Knör, P. Lafitte, E. Larre, L. Mitxelena, P. Ondarra, J. San Martin, J. M.<sup>a</sup> Satrustegi eta A. Zavala euskaltzain jaunak; J. A. Arana, J. M.<sup>a</sup> Aranalde, M. Atxaga, P. Charritton, J. M.<sup>a</sup> Etxaburu, E. Etxezarreta, J. Garmendia, J. Garmendia Larrañaga, P. Goenaga, X. Kintana, D. Landart, J. L. Lizundia, J. A. Loidi, X. Mendiguren, I. Sarasola, A. Zatarain eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazle jaunak; J. M.<sup>a</sup> Satrustegi idazkari dela. J. L. Davant goizean egon da.

X. Diharce, J. Hiriart-Urruty eta P. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

E. Etxezarreta eta D. Landart bi euskaltzain urgazle berriei ongi-etorria eman die Euskaltzainburuak.

## I GOIZEKO BILERAREN BERRI

Euskaltzain osoak bildurik, goizean honako gai hauek erabili dira:

1. *Barne-Erregelen berritzea*. Gaur bukatzen da oharrak egiteko epea. Lizundiak ekarri ditu bere zuzenketak eta irakurri ondoan, txosten bat egiteko eskatu zaio. A. Irigoyen eta J. A. Arana arduratuko dira Liburutegirako aurre-arau bat gertatzen eta, era berean, L. Villasante eta J. L. Lizundiak ekarriko dute Lagun berrien mailako atala sartzeko proposamena.

2. Adoingo Esteban aita kaputxinoaren heriotzaren mendeurrena betetzen da Urriaren hamaikan. Euskaltzaindiak bere goratzarrea egin nahi dio egun horretan, eta horretarako egitarau bat gertatu du. Arratsaldeko lauretan oroitarraren agertzea Adoingo Eneko, bere sortetxean. Esaera: Esteban Adoain, euskal predikariari. "Euskaltzaindiak La Real Academia de la Lengua Vasca por su labor euskérica. 1880-1980", J. M.<sup>a</sup> Satrustegi, J. San Martin eta Ancin aita kaputxinoa mintzatuko dira Setan, Santa Fe herrian.

3. Martin Ugaldek Euskaltzaindiari buruz gertatu duen liburuskak ikusi eta zenbait ohar egin zaizkio.

4. RTVE saioretan euskara sartzeko asmoez, Euskaltzaindiak hizkuntzarekiko arau-ematearen ardura duela beregan erantzungo zaio Euskal Kultur kontseilariari, batez ere ebakiera eta joskerak gehienik kezkatzen duelarik.

Arazo hau delata, euskararen ebakiera edo ahozkatzea egokitzeko gomendioak beharrezkoak direla esan da. Horretarako batzorde bat sortuko dugu.

5. Frisiatik etorritako deiari erantzun zaio, Romantizismo eta Europako hizkuntza txikiak gaidun Kongreso batetarako. 1981.eko Apirilean ospatuko da, eta norbaitek horretaz txostenen bat egitea nahi badu, adieraz beza Zuzendaritzara, hainbat laisterren.

6. Jardunaldietako lanak argitaratu aurretik egile bakoitzak bere ohar eta eraskinak egiteko epea Azaroaren 16an bukatzen da. Ordurako bakoitzak berea zuzentzea eskatzen da, lehen-bait-lehen liburua argitaratzeko. Euskalariekin harremanak jarraitzeko Idazkaritza iraunkor bat sortzen da era honetara. L. Villasante buru; *Batzorde eragilea*: J. San Martin buru; J. A. Arana idazkari; J. A. Etxebarria; P. Sancristoval; X. Gereño; *Kontseilari batzordea*: L. Mitxelena, iker sailburua; J. M.<sup>a</sup> Satrustegi; E. Knörr, ingl. jap. eremua; J. Haritschelhar; K. Rotaetxe, frantzez eremua; P. Altuna, aleman eremua; X. Kintana, sobiet eremua; J. Bilbao, Ipar Amerika eremua.

7. Euskaltzainek batzarretara etortzeko eragozpenik izan ez dezaten, Unibertsitate eta ikastetxe nagusietako erretor eta zuzendariei hilabetearen azken ostirala euskaltzainei libre uzteko eskatuz gutun bat egingo zaie, eta ahal balitz baita batzorde lan bileratarako ere.

8. Gramatika batzordekoak Irailaren 19an bildu zirela esan dute. Iadanik bi lan aurkeztu dira: P. Lafitte jaunarena *a* artikulua, eta P. Altunak *non* erabiltzeaz. Zokoratu beharrean, egin ahalean eskuz banatzen joateko txosten hauek multikopiaz ateratzea komeni dela esan da.

## II TXOSTENAK

Arratsaldeko batzarrean txosten bi irakurri dira, ondoren ohi den elkar hizketa izanik:

A. Tovar-en: “Nuevo y más extenso texto arcaico vasco, de una carta del primer obispo de Mexico”. Egileak bialdutako lana L. Mitxelenak irakurri du.

J. Garmendia Arruebarrena: “Euskaldun abizenak Sevillan eta Cadiz-en”. Bigarren txosten hau J. L. Lizundiak irakurri du.

Eta besterik gabe amaitu da batzarra.

*Euskaltzainburua*  
FR. LUIS VILLASANTE

*Idazkaria*  
J. M.<sup>a</sup> SATRUSTEGI